

IRITZIA

Mila Osoro

ERREPORTAIA

Deba ibaian
arrantza egiten
zenean

KALE INKESTA

Zer iritzi daukazu
Itsasondoko epaiari
buruz?

BERBETAN

Xabi Gomez,
apaiza

UDALETXETIK

97ko Udal
aurrekontuak



KIROLA

Elgoibar Igeriketa
Taldea sortu da

KULTURA

Miguel Fuentes
eskultore ermuarraren
erakusketa

GAZTAROA


Oporrak
aterpetxeetan

BARREN

1997ko martxoaren 14a
V. urtea - 187. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A


Kainaberak prest



“Pazientziak indarrak baino botere handiagoa du.” Pl ut ar co

GARBINE

Azal mota guztietarako tratamenduak



GORPUTZ GUZTIKO DEPILAZIOAK

- Beroa
- Temperatura baxukoa
- Elektrikoa


AURPEGIKO TRATAMENDUAK ETA MAKILAI

- Azido glikolikoa
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Regenerazioa
- Zimurren aurkakoa
- Aurpegi garbiketa

AURPEGIKO TRATAMENDUAK ETA MAKILAI

- Reafirmanteak
- Zelulitis tratamenduak
- Masaia
- Paparreko liftina

Algen tratamendua,



10 sesiorekin, bat dohainik

P. M. Urruzuno, 27 • Tel: 74 31 32

ZELETA BARAZKIAK



*Barazki desberdinak
produzitzen ari gara?
tomate hibridoa, piperra, ...*

*BARATZGINTZA
TRADIZIONALA ETA
BABESTUA*

Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

*Luis Kortaberria
"Otsua"*

*Txarridana
pentsuak*

*INEKO
Nekazari kooperatiba*





MILA OSORO

Beldurra galdu behar dugu beldurrik gabe bizitzeko

Gure lagunen artean gaudenean, afari baten bueltan edo kafe bero bat hartzen, gai jakin bat ateratzen denean, zenbat aldiz geratzen gara gure iritzia eman ezinean jakin badakigulako gure inguruan dauden pertsonen artetik, agian bat, agian bi, gure iritziarekin ados ez daudela. Ez gara ausartzen lasai hitz egitera, arrazoi ezberdinengatik. Lagun horrekin haserretzerik nahi ez dugulako edo batzuetan gai baten inguruan eztabaida handia pizten denean laguna galtzeko arriskua ere izaten delako.

Oraintxe azaldu dudan egoera hau ez da lagunartean bakarrik gertatzen. Tristeagoa da gauza bera etxekoen artean gertatzen dela ikusten dugunean. Eztabaida sutsuetatik sarri gertatu ohi da anai-arreben arteko edo gurasoen arteko harremanak eten izatea, batek gauza bat zuria dela uste duelako eta besteak, berriz, beltza.

Azkenean konturatzen gara gure iritzi berdinekoak diren pertsonekin bakarrik

hitz egiten dugula, eta horrela ez goaz inora.

Etxekoen artean bai lagunen artean gai serioak tratatzen ditugunean, esaten dugun lehen gauza zera izaten da: elkarrekin hitz egin behar dugula, baina inoiz ez dugu esaten elkarri entzun egin behar diogula.

Hitz egin eta entzun. Horixe da gakoa.

Hitz egiten eta entzuten ikasi beharra daukagu, edonorekin hitz egiten eta edonork esaten duena entzuten, pertsona horrek esaten duena gorria, zuria edo beltza den begiratu gabe.

Argi dagoena da ikasteko asko falta zaila baina funtsezkoa elkarri entzutea da. Ziur nago ausnarketa saio bat eginez gero,


denok hori pentsatuko genukeela.

Gure gizarte korapilatsu honek sufrimendu gehiegi dauka eta denon beharra dauka sufrimendu horiek ahal den neurrian arintzeko. Goazen bada, gure hondar apurra jartzera, eraiki nahi dugun gizarte horren alde.

“Hitz egiten eta entzuten ikasi beharra daukagu, edonorekin hitz egiten eta edonork esaten duena entzuten”

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak berea aukeratzen du.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte.

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo.

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Gemma Agirregomezkorta,

Ion Arrieta,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Pello Rubio

Unai Villena eta Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga.

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E.

TIRADA

4.000 ale.

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



luzka fundazioa
fundación luzka

DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

Damu zaitezte elgoibartar pekatariak!

Damu zaitezte, pekatariak, aho-beroa eta pentsamendu txarrak izan dituzuelako. Inolako kulparik ez duen gazte bat juzkatzea, gazte errugabe bat...

Izan ere, Plazentziko aingerutxoaren erru bakarra Elgoibarko jaietan lainorik laino parrantatxo batean murgilduta zegoela litzateke, inguruko amaren seme guztiak bezalaxe. Bapatean, hara non azaldu ziren Atutxa Deunarena soldadu maltzurak su artetik eskudo, ezpata eta guzti, eta mutikoari beso bat apurtuz. Halere, zuek, pekatariak, zortzigarren mandamentuari muzin eginenez gizagaixoa epaitu eta sententziatu egin nahi izan zenuten.

Onartu beharra dago, lurta koi-taduak, ezjakintasunez ito beharrean bizi zaretela; halako desinformazioa, hainbeste Diario Vasco, ETB eta atutxatarren pregoi maltzurak irakurri, ikusi eta entzunez... Inozak!

Ai, elgoibartar gizasemeak, pekatuaren hatzaparrek harrapatu egin zaituztete. Ez harritu hurrengoan tximista justiziero bat gainera erori edo ahoa hiltzatuta agertuko balitzaizue. Azken finean, "gezurrezko testigantzek" bere zigorra merezi dute.

Pekatariek...!

Elgoibarko Jarrai

Euskaraz Korrika

BARREN zure eskuetara iristen denerako Korrikaren 10. edizioak bere lehenengo kilometroak eginak izango ditu, arratsaldeko 5etan abiatu baita Arantzazutik.

Aurten Korrikak elgoibartarroi ahalegin bereziak eskatzen dizkigu. Alde batetik, hilaren 21ean gure herritik pasatzen den momentuan lasterketan bertan partehartzea. Bestetik, eguneroko bizitzan euskaldunok euskaraz berba egitea (ez al gara lotsatzen esaten digutenean zuen herrian ez da euskararik entzuten edo ia ia ez da entzuten?) eta ez dakitenek ikasten hasteko pausoak ematea, denon esku dago, eta euskarak behar duen lekua lortzea.

Gogoratu Ion Arrietak aurreko alean nola definitu zuen "Denona, Nirea ere bai". Ez diezaiozun beti aldamenekoari errua eta zama bota! **AEK euskaltegia**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik.



◆ Kultur Etxearen ostean dauden zabor kontenedoreetara zakar poltsak egunero eramaten dituen herritar batek honako kexa hau agertu nahi du: **“iguina ematen du zabor kontenedoreetara inguratze hutsak, bertan egoten den kiratsak eta euli mordoak atzera egiten du. Gehiegi eskatzea al da lantzean behin mangera pasatu eta garbitzea? Denon mesederako izango litzateke”.**

◆ **Bi mutil gaztek** Leku Ederreko komunak norbait ere egin dituela salatu nahi dute eta zikinak egoteaz gain, papelik ez dela egoten adierazi nahi dut.

◆ **Gaztetxo batzuek** kexu dira, **hilaren 19an izango den Euskaraoekan 5. mailatik beherako neska-muetilek ezin dutelako parte hartu.** Ez zaie ondo iruditzen honela izatea euren nagusiagoek bezain ondo banta baitezakete.


◆ Elgoibarko langile batek, martxoaren 7an herriko langile eta dendariak jasan zituzten **mehatxuak salatu nahi ditu.** “Demokraziaren alde ospatu zen greba faszismoaren greba besterik ez zen izan eta gure artean porrot handiaren bukaturik”. Bestalde, fatxadetako pintadak ere salatu nahi ditu, HBko militanteen etxeak garbi daudela gehituz. Amaitzeko, iritziak kaleratzeko beldurrik izango ez den eguna laster iristea nahi duela aipatu du.



◆ Joan den larunbat goizean Mintxeta inguruan pasiaran zebilen bikote batek **Zuhaitz Eguna** zela-eta, zuhaitzak landatzen ikusi zituztenak txalotu nahi ditu. Ekintza bene-

tan txalogarria iruditzen zaie zuhaitzak landatzea, benetako aberastasuna naturan baitago. Hurrengo urtean ere gauza berdina egitera animatu nahi dituzte.

BAI, ESAN?



Alfonso Eugi
AEKkoa

Gaur, hilak 14, Arantzazun hasi da Korrika. Datorren ostiralean, hilak 21, Elgoibartik pasatuko da, eguerdiko 14:30etarako du jarrita ordua. Ekitaldi herrikoi honen inguruan zerbait gehiago jakin nahian **AEKko arduradunengana** jo dugu. Hona hemen gure telefono deia **Alfonso Eugi** emandako erantzuna.

– **Hilaren 21ean, Korrikak Elgoibar zeharkatuko du. Zer nolako erantzuna espero duzue herritarren aldetik?** - Aurten kontuan izanik Korrika ostiralean eta arratsaldeko 2:30etan etorriko dela, ikastetxeetako jendeak erantzungo duela batez ere espero dugu. Dagoeneko badakigu Ikastola, Herri Eskola eta Pilar ikastetxe 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak bertan izango direla. Bestetik, Institutu eta Lanbide Eskolako ikasleak eta irakasleak euren kilometroa egingo dute euskararen alde. Honek eta eguraldiak laguntzen badu, ikusgarritasun eta kolore handia emango dio Korrikari.

– **Kilometroen salmenta nola doa? Zer egiten da diru honekin?** - Momentuz hamarretik gora dira herriko talde, alderdi, elkarte etab. izena eman dutenak, kilometro bat erosiz erreleboa egiteko euskararen alde. Kilometroak ez dira izaten kasurik gehienetan 1.000 metrokoak, kilometro sinbolikoak baizik.

Diruari buruz Elgoibarko AEK euskaltegiak beti esan du kilometroen prezioa 25.000 pta.koa izan arren, talde bakoitzari bere ahaleginen barruan lagatzen zaio, garbi izanik euskarari eta AEKri laguntzeko direla.

– **Noiz arte beharko du AEK Korrika antolatzea?** - Korrika euskara sustatzeko eta indar berritzeko egiten den ekitaldirik handiena da. Herri guztiak parte hartzen du eta horixe da euskarak gizartearen dagokion lekua lor dezan behar duena, denon parte hartzea eta aintxixika gainera, euskararen berreskurapenak presa duelako.



CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Idazkari bat behar da:

Baldintzak:

- Musika eta literatura munduak
- LH II Administrazio eta artzakiak
- Ingurumen inguruko proiektuak
- Hizkuntza, hizkuntza, telebista eta irratia

Interesatuak izan behar duen CV eta argazkia bidaltzeko helburuak:

48 Postakubia
20 870 Elgoibar
Herritarantza "Idazkari"

Epea: Martxoak 15a baino lehen

Deba ibaian arrantza egiten zenean

Martxoaren 16an hasiko da arrantzarako sasoia. Gaur egun kirola kontsideratzen da arrantza. Izan ere, gure herrietako ibaiek jasan behar duten kutsadurak eraginik, apenas arrainik bizi den ur hauetan. Halere, nork ez die noiz edo noiz herriko nagusiei garai bateko arrantza oparoei buruz hitzegiten entzun? Ez dira hainbeste urte Deba ibaian, amuarraina, angulak, barbua eta bestelako arrainak bizi zirela. Aste honetako erreportaiaren atzera bidaiatuko dugu eta garai bateko arrantza-sistema eta ohiturak ezagutuko ditugu.



Ignacio retolaza Deba ibaian, Melitongo presan. 1967.urtea.

Montes aldizkariak 1949. urtean argitaratu zituen estatistikaren arabera, 1947. urtean Deba ibaian 185 kilo amuarrain, 175 kilo angula eta 35 kilo barbu arrantzatu ziren. Urteetan hain atzera joan gabe ere, Ignacio Retolazak ezagutu zuen gure herriko errekan arrantzatzea zer zen. 53 urte dituen gizon honek etxeko leihotik behera kainabera bota eta barboak, loinak edo bestelakoak harrapatzen zituen.

Garai hartan ibaia garbigarbia zetorren. Urek ez zuten inolako kutsadurarik jasan behar eta batean zen bestean ibiltzen zen jendea bainatzen, "Errotatxo aldean andrak bainatzen zian etagizonak erreka haundixan". Benetan ederra zen ur gardenetan sartu eta era guztie-

tako arrainen artean igeri egiten ikastea, "holaxe ikasi naban nik. Behin eta bigarrenian uretara jausi eta nola edo hala igeri eitzen jakin bihar ez itxotzeko".

Txanpain botilekin arrantzan

Sigma parean bata, Errosario kalean bestea eta San Antolinen hirugarrena. Hiru presa zeuden duela urte batzuk Elgoibarren eta horietako bakoitzean arrain desberdinak bizi omen ziren, "presa azpitan ezkerrera angilia egoten zan eta eskumara amuarraina. Potzuan, azpitan kangrejua ur gutxi zaoanian. Behero, berriz, barbua". Eta oraingo kainabera

eta bestelako tresneria modernorik ez zegoenean, bestelako teknikak erabili behar izaten zituzten arrantzan egiteko.

Ignaciok kontatu digunez, "eskailuak hartzeko botilak erabiltzen zian. Txanpai botila bat hartu eta ipurdixa moztu eitzen zakon. Gero, barruan ogi mamia sartzen zan amu bezela eta botelian kortxua beti korrientian kontra. Arraina amu bila sartu eta gero ez zaban asmatzen zela urten". Botilarena ezezik bestelako teknikak ere baziren, "garbantzua egosi eta Txankakua zubitxikan botatzen zan. Barbua asko zauan inguru hartan eta segiduan hurrera-

tzen zian garbantzo artera. Halako batian, garbantzua amuakin ipini eta barbua bertan jausten zan, 2 eta 3 kiloko barbua". Ogia, garbantzoak, artoa eta zizareak, denetik erabiltzen zen amugisa.

Loina eta barbuak eskuz ere arrantzatzen zituzten, "Sigma pareko presa aldian uretara sartu eta han, haitz azpitan eskua sartuta barbo mordo bat hartzen genduan".

Etzetik eta lantegitik

Ez pentsa, ordea, toki berezietara joan behar izaten zutenik arrantzara. Erreka bazterrean bizi zirenek, etxeko leihotik bertatik kai-

nabera bota eta zain egoten ziren, arrainak amua noiz jango, “batzuetan kanpanila bat jartzen gendun eta beste zeregin batzuetara jutun ginan. Arraina jausten zanian kanpaniliak ematen zizun abisua”.

Ibaia garbi eta arraina ugari. Baina arrantzan ibiltzea ez zen guztiz librea. Izan ere, Udaleko ordenantzek edozein arrantza mota egitea debekatu egiten zuten. Guardia Zibilek zuten erreka zaintzearen ardura eta arrantzaleek denetik egin behar izaten zuten haien bistatik ahalik eta urrutien egoteko. Esate baterako, kuadrila bat ibai bazterrean arrantzan zegoenean, norbait bizikletaz gora eta behera ibiltzen zen. Guardia Zibilak hurreztatzen zirela ikustean, arrantzaleei abisua ematen zien. Bestetan, ibai ondoko baserriarek Guardia Zibilak entretenu egiten zituzten eta bitartean norbait arrantzaleengana joaten zen abisua ematera.

Kutsadurarekin, arrainik ez

1955ean jasan zuen lehen kutsadura larria Deba Ibaiak. Ignaciok gogoratzen duenez, “Maltzagan zianuro garrafa bat jausi eta apurtu ein jakuen trenian sartzen ari ziala. Harek hartu eta, inor

ez enteratzeko edo, erreka bota zeben. Elizara juteko urten nitzan etxetik baina zubira begiratu eta jata loinak, barbuak eta amuarrainak saltoka eta saltoka kanpora ateratzen ikusi nitxun. Ez eliza eta ez ezer, erreka jun nitzan, sustauta, zer pasauko ete zan. Pilar kolejixo azpizaxan oin itxurixan dauan tokixan potzua zauan erropia garbitzeko. Balde batian arrainak hartu eta hara eruan genitxun, eta han ondo”.

1962an ere bestelako azidoak bota zituzten erreka eta arrainak hiltzen eta desagertzen hasi ziren.

Gaur egun korrokoia baino ez da noiz edo noiz ikusten, “korrokoia ez da arrain zikina. Pasatzen dana da arrain fuertia dala. San Lorentzotik batzuetan jeisten dia arrainak Deba ibairaino, igual 15 egun aguntatzen dabe azken urtietan bastante ondo dao eta”. Asko zikindu omen zen ibaia 1983 eta 89ko uholdeetan. Halere, depuradorak direla eta enpresek zikinak erreka botatzea isuna dakarrela kontuan hartuta, 1990 urtetik hona dexente garbitu dira urak. Miguel Sanchez Teknimap enpresako ingurugiro teknikariak BARREn esan bezala, “Deba ibaian arrainak ikusiko ditugu 2.000 urte inguruan’. Ea egia den!



Amuarraina, loina, barboa... denetik arrantzatzen zen.

Igancio Retolaza:

“Errekan pli-pla, arrainen zaratia entzutia da hermosa”

- Umetan hasi zinen arrantzan.

- Bai, 6 urte inguru eukiko nitxun. San Frantzisko kalekoa naiz eta gure etxe onduan andrak erropia garbitzen egoten zian tokixan barbuak pila bat zauan. Orduan txinbo jaboia erabiltzen zan eta ez zauan oingo erreka zikinik.

- Eta nork irakatsi zizun?

- Arrantzan? Inork ez. Bestiei begira ikasi naban. Kolejixuan ere ez ziguten lagatzen erreka hurreratzen, peligrusua ete zan edo. Baina nik beti eitxen naban ihes eta han jutun nitzan.

- Arrain asko zegoen?

- Mordua! Barbuak, loina, angilak, amuarrainak... Segun eta ze tokixan arrain bat edo bestia zauan. Arratsalde batian gaberako kuadrilan afaltzeko arrainak nahi genitxula eta han jutun nitzan ni. Igual 8 dozena loina harrapatzen nitxuan.


- Zein da arrantzale onaren sekretua?

- Lelengo arrain asko egotia eta gero abilidadia. Baina beti dao martingala batzuk. Esate baterako euzkixan parian sekula ez da ipini

bihar bestela uretan itzala ein eta arrainak igeri eitxen dabelako. Eta zaratari ere ez da sekula ein bihar, arrainak ez entzuteko. Arrantzan indixuak moduan ibili bihar da, isil-isilik.

- Ez dira urte asko pasa ordutik. Ikusiko al dugu berriz Deba ibaia arrainekin?

- Nik esperantzia badakat. Oin gehixo kontrolatzen dabe enpresek zelako zikinkerixia botatzen daben erreka eta 1990 urte ingurutik igartzen da erreka garbixuak dauala. Ondiok arrain asko ez da erreka haundiko uretan sartzen baina poliki-poliki hasiko dia, seguru. Akordatzen naiz zela lehen gabian errekan pli-pla, pli-pla arrainen zaratia entzutun zan. Hori da hermosa!



Zer iruditzen zaizu Itsasondoko epaia?



**GLORIA
ARRIOLA**

60 urte, etxekoandrea

Oso gaizki. Desastre bat. Epaimahai popularran legia ipini zabenian ere esan naban atzera jutia zala. Juezak ein biharko leuke lan hori eta ez guk, herritarrok.



**KURUTZ
CASTRILLEJO**

38 urte, kontroladorea

“Demokraten” legeen ondorioa da. Zergatik hau ez onartu? Ezker abertzaleko kidea delako? Komunikabideek egindako epaiketa paraleloa salatu nahi dut.




PAQUI MATEOS
31 urte, etxekoandrea

Nire ustez ez dute behar bezala epaitu. Izan daiteke epaimahaikoek mehatxuak jasotzea eta horregatik epaile batek epaitzea aproposagoa dela irizten diot.



**FAUSTINO
GARCIA**
45 urte, fresista

Epaimahai herrikoia ondo dago kasu guztietan. Ez da logikoa batzuetan epaimahai herrikoia egotea eta beste batzuetan ez. Kasu honetan nahiago dut iritzirik ez ematea.



**JUAN MANUEL
GÓMEZ**
44 urte, langabetua

Ez zait logikoa iruditzen. Epaimahai herrikoia egotea ondo dago. Prestatuta egon badaude juzkatzeko baina kasu hau oso delikatua izan da.



ISABEL MARÍN
46 urte, etxekoandrea

Ez dagoela ondo iruditzen zait baina ez dago ezer egiterik. Errua legeak dauka. Epaimahai herrikoia ez da horrelako gauza bat epaitzeko aproposena.

<p>LASA JATETXEA</p>  <p>OZAETA JAUREGIA (Bergarako hegoaldeko irteera)</p>	<p>MONUMENTU NAZIONALA</p>  <p>Tel: 76 10 55 BERGARA</p>	<p>Aste honetako DEGUSTAZIO MENUA</p> <p>Ahate gibel eta trufazko aspica</p> <p>Honddo budina berroen saltsarekin</p> <p>Txangurroz betetako legalza</p> <p>Magret-a erreta patata pobre eta erromero usain gozoarekin</p> <p>Ezli izozkia, intxaursaltsazko couli-en gainean</p> <p>Sorbeteak aukeran, 3. urteko ardoa, rafea + Petit Suis-a</p> <p>4.900 pta. + BEZ (%7)</p>
<p>EZKONTZETARAKO JANGELA ZABAL eta APROPOSA</p>	<p>PARKING PRIBATUA TERRAZA eta LORATEGIA</p>	

iSiSiPi- BEGIRA



KATIUSKA
tabernakoa

Ama Rubi eta

- Udaberrirako edari bat? - Garagardoa.
- Alkoholdun edariak ala gabekoak? - Tabernarako alkoholdunak baina nerretzat gabeak.
- Noiz hartu zenuen lehenengo mozkorra?
- Ez naiz inoiz ere mozkortu.
- Zer ospatuko zenuke topa eginez? - Urtebetetze egun bat, familia elkartzeko den horietako egun bat.
- Garagardoa horia ala beltza? - Australiarra (horia).
- Eta gizonezkoak? - Denetarikoa atsegin ditut.
- Juergarako edari bat? - Champagne-a.
- Nahastuko ez zenituzkeen bi edari?
- Ardoa Champagne-arekin.
- Nor gonbidatuko zenuke kafea hartzera? - Lagunen bat.
- Zein izan da eskatu dizuten edaririk arraroena?
- Butanoa, baina zer zen ez nekienez alde egin zuten tabernatik.
- Noiz egin zenuen azkenengo parranda?
- Australian, duela bi urte t'erdia.
- Edari hotzak ala beroak? - Hotzak.
- Eta eguraldia? - Hotza baita ere.
- Elgoibartarrok zer edaten dugu gehien? - Ardo beltza.
- Zer zapalduko zenuke katiuska batzurekin? - Jende asko, eta horretarako badut arrazoirik.
- Muztioa bezain gozoa den zerbait? - Ez naiz batere gozozalea.
- Kafe hutsa ala esnearekin? - Hutsa.
- Goizeko kafesnea ala afal ostekoa? - Hamarretakoa egin ohi dut goiz erdian eta afal ondoren ez dut ezertxo ere hartzen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

UDALEKU ITXIAK ASTE SANTUAN



ATXUTXIAMAIIKA BEGIRALE TALDEAREKIN

Brinkolako Aterpetxean (LEGAZPI)



EGITARAUA

Irteera: Apirilaren 2an goizeko 11etan Plaza Handian.

Itzulera: Apirilaren 5ean eguerdiko 12etan Plaza Handian.

Zer:

- Mendi-irteerak.
- Mirandaolako burdinola ikusi.
- Gaztaren museoa bisitatu.
- Inguruko herrietara txangoak.

Prezioa: 6.000 pta.

Norentzat: LHko 5. mailakoentzat.



ANTOLATZAILEA: Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA B.T. · LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia

● Betaurreko eta botikak biltzeko kanpaina

Pilar ikastetxeak SER-SO-Elgoibar izeneko Hirugarren Munduaren Garapenerako Zerbitzua martxan jarri du. Lehen kanpainari ekin dio dagoeneko eta helburua betaurreko eta botikak biltzea da. Etxeko armairuetan pilatutako antibiotikoak, antiinflamatorioak, aspirinak, gasak, alkohola eta antzerakoak Pilar ikastetxera eramateko gonbitea luzatu nahi die herritar guztiei. Botika hauek guztiak Afrikako Bouaké-ko Zentro Oftalmologikora bidaltzeko ardura Pilarreko arduradun eta ikasleena izango da.

● Gillermo Garateri gutuna bidali dio HBk

HBk gutun ireki bat bidali zion otsailaren 25ean Garate alkateari, Gipuzkoako 48 alkatek enpresarien alde sinatutako dokumentua dela-eta. “Inpunitatean jardun duten enpresa gizonei langileriari lapurtzen jarraitzeko baimena eman zaio sinadura horrekin. 95ean kontratuen %96a behin-behinekoak izan ziren, milaka langile seguritate sozialik gabe zeuden eta familien %17a 48.000 pta. baino gutxiagorekin bizi zen”. Idatziaren arabera, iaz 49 langile hil ziren gure herrialdean eta 257 pertsona oso larri geratu ziren lan itsuripuen ondorioz. HBk argi utzi nahi du ekintza honekin alkateek nahiago izan dutela gutxi batzuen interesak defendatzea herri xehearen borondatea gauzatzea baino.

Jonan Fernández Elkarriko foroan izan zen

Joan den ostegunean Elkarriko Jonan Fernández Elgoibarren izan zen herriko Elkarriko tailerrak antolatutako bigarren forora gonbidatuta. Fernándezek bake-prozesurako teoriak azaldu zituen. Fernándezekin batera Arjentinako Arazo Indijenen Zuzendaritzako Viviana Canet etorri zen, foroan esperientzia lekutik bertatik ezagutu eta jasotako jakintzak Arjentinan aplikatzeko asmoarekin. Elgoibarko bakearen foroaren bigarren saioan 20 bat lagun elkartu ziren.

Gai honen inguruan zertxobait gehiago sakondu nahian Jonan Fernándezekin harremanetan jarri gara eta hona hemen azaldu diguna. Elkarriko kidearen ustean bakea eta elkarrizketa behetik gora eraiki

behar dira, normalean bake prozesuak beti sinatzen baitira kupuletan. “Errekonziliazioa gizartearen ere gertatu behar da, hori lortu nahi du foroak”.

Foroen efektibotasuna ezin daitekeela “modu inmediatean neurtu” uste du Fernándezek. “Foroek bakerako giza-azpiegitura sortzen dute, bakearen ueña heltzen denean gizarteak respaldoa eman dezan. Honek ez luke zentzurik izango foroak herri bakar gutxi batzuetan baleude, baina kontuan hartu behar da Euskal Herrian 100 forotik gora daudela”.

Bakearen bidean, “beti pentsatzen dugu lehen pausoa besteak eman behar duela; argi dago esperoan egon gabe norik bere eskuetan dagoena egin behar duela. Gaur egun gatazka humanizatzea litzateke lehen urratsa: presoen hurbilketa eta bahituen askatasuna”. Bakearen eguna oraindik urrun badagoen ere, “bake hori lortzeko prozesua da hurbil dagoena. Laister ikusiko dugu bake prozesua martxan”.



Ostiraleko greba kualitatiboki baloratu du HBk

Joan den ostiralean dena gehienek irekitzea erabaki bazuten ere, HBko pikteteen eraginez, eguerdirako denda gehienek itxi egin zuten eta arratsaldean, bat edo beste salbu, komertzio guztiak itxita egon ziren. Ikastetxeek emandako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako zentroetan eta Gestio Eskolan ez zen grebarik egin. IMHn, ikasleek greba egitea erabaki zuten botazioz bai eta Bernardo Ezenaroren LOGSE, zikloak eta moduluetan ere. Arreiturreko ESO, BBB eta RE-Men klasea eman zen. Enpresa gehienek lana egin zuten, ELAk ez baitzion grebari erantzun eta LABeko afiliatuek bakarrik utzi zuten lana.

HBren balorazioa

Elgoibarko HBk bere aldetik, “balorazio positiboa” egin du, “grebari izaera kualitatiboa eman baiketion. Mobilizazio eta greba eguna nahi genuen, egungo politika inposatzailea salatu, eta lortu egin genuen”. Grebaren aurkako kanpai-

naren presioa izugarria izan zen HBren ustetan, “goizetik herria Ertzantzak okupatua agertu zen, Kultur Etxea komisaldegia bihurtuta (noren baimenarekin?), paisanozko ertzainak, grebaren aurkako pankartak, kartelak etab. Hala ere, ostiralean kaleak geldirik egon ziren”.



Zuhaitz Eguna

Joan den larunbat goizean Zuhaitz Eguna ospatu zen Elgoibarren. Herriko ikastetxeetako 20 bat haurrek, Udal Brigadakoek lagunduta, Diputazioak emandako 25 bat arbola ezberdin landatu zituzten Mintxetako inguruetan. Aitzurrarekin lurari kolpe eginez zenbait haur arbolak euren eskuz landatzera animatu ziren. Ekitaldian Hirigintzako buru den Jose Maria Oruesagastik hartu zuen parte.



Abesti, poesia eta kontakizun erotikoak

Korrikaren bueltan, AEK-k eta Lanbroa kafetegiak antolatuta "Igurtzi nazazu berriro laztana" emanaldia izan zen zapatu gauean Lanbroan. Asier Serrano eibartar gazteak poesiak errezitatu zituen, Jose Mari Carrerek ipuinak kontatu eta Mikel Markezek abestiak kantatu. Gaia erotismoa zen.



Dantza Eskolakoak Auresku Txapelketan

Inazio Bereziartua dantza eskolako hiru ikaslek, Unai Garate, Haritz Arrieta eta Jon Zalduak Gipuzkoako Auresku Txapelketan parte hartu zuten joan den igandean Beasainen. Guztira 41 dantzarik hartu zuen parte bi taldeetan banatuta, gazteak eta helduak. Haritz Arrietak hirugarren postua lortu zuen gazteen mailan.

Datorren larunbatean, berriz, maila bakoitzetik 15 dantzari sailkatuko dira igandeko finalerako, Oreretan biak ere. Elgoibartarren ordezkaritza izango da bertan. Ea zortea duten!



azkue

● Josu Goñi intsumitua epaitu dute

Asteazkenean, hilak 12, Josu Goñi elgoibartar intsumitua Donostiako Auzitegian epaitu zuten. Goñi epaitzen duten hoigeta hamargarren elgoibartar intsumitua da. Talde Antimilitaristako kideek jakinarazi digutenez, "30 bat intsumitu epaitu dituzte dagoeneko eta beste horrenbeste daude epaiketaren zain". Kode penal berria aplikatuko zaio Josu Goñiri, hortaz, zigorra santzio administratiboa izango da eta ez penala. Zigorra bi urtetik 12 urtera bitarteko inhabilitazioa izan daiteke. Epailearen erabakia Auzientzia Nazionalera bidaliko dute.

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

ION

- LARRUA
- ANTEA
- NAPA

Orain Gizon eta emakumeentzako moda

San Bartolome, 37
ELGOIBAR

26 urte ditu azkoitiar honenak. Legazpian urte bat egin zuen diakono eta duela hiru etorri zen Elgoibarrera. Txikitatik oso garbi izan du apaiz izatea duela bokazio eta urteotan ikusi eta ikasi duenaren arabera, bere fedea areagotu eta finkatu egin dela aitortu digu. Xabi Gomez apaiz eta pertsona ezagutu nahi izan dugu. Bata eta bestea bereizetik ezinezkoa bada ere.

XABI GOMEZ

”Apaizok puskatutako bihotz batekin maitatzen ikasi behar dugu”

– Zerk bultzatu zintuen apaiz izatera?

- Federik gabe ezin da ulertu. Nire fedea eta nire bizitza bideratu eta Jaungoikoarekin maitasun istorio bat eraiki nahi nuela erabaki nuen.

– Apaiza ez beste zer izan nahi zenuke?

- Arte Ederrak egitea ere pentsatu nuen baina beti gustuko izan dut okina edo dantzaria izatea.

– Zerekin egin zenuen topo Elgoibarren?

- Triste samarra zegoen herri batekin, langabezia handia, esperantza gutxi zuen herri batekin... Bestalde, deskubrimendu bat izan da parrokitik kanpo ezagutu dudana jendea eta egin ditudan lagunak. Ezer jakin gabe asko lagundu didate.

– Zer aldatu da hiru urtetan?

- Eliza irekiagoa ikusten dut, gazte gehiagok hartzen du parte eta etorkizunari begira prestatzen ari da. Bes-

talde, hor gabiltza Gaztetxe-ko asuntxoarekin kezkatuta. Atzeratzen ari da. Badirudi badagoela borondatea instituzioen aldetik. Hor dago Gaztetxea aurrera ateratzeko erronka handia. Positiboa da herriarentzat.

– Apaiz gaztea, gauzez kalera ateratzen dena. Moder-noegia?

- Agian bai, batzuentzat apaizak serioagoak izan behar gara, txintxoagoak. Gizarte honetan imaginari asko begiratzen zaio. Nik nahiago dut barneko lanak eta erreallitatea azaldu.

– Gazte eta apaiz izateak ba al du kontraesanik?

- Batzuetan apaiz bezala erantzun bat eman behar izan dut nahiz eta gazte bezala agian beste zerbait pentsatu. Ez da erraza. Halere, beti maitasunak bultzatuta jokutzen dut.

– Nolako da Xabi Gomez pertsona?

- Bere burua ondo eza-gutzen duen pertsona bat,

bere aukerarekin gustura bizi dena, Jainkoarekin elkar-riketa asko egin dituen... Eta batez ere pertsona sensible eta gartsua.

– Eta apaiza?

- Baita ere sensiblea eta injenuoa. Injenuitate hori gustatzen zait nahiz eta jendeak gauza txartzat hartu. Injenuo izatea ez da inozoa izatea.

– Elgoibarren luze izango zara?

- Prest nago jarraitzeko baina era berean beste eska- era batzuerara irekia nago, 3. mundura joan nahi nuke.

– Beti batera eta bestera.

- Bai, ez da erraza. Pus- katutako bihotz batekin maitatzen ikasi behar dugu. Toki bakoitzean, pertsona bakoit- zean zure bihotzaren zati bat lagatzen duzu.

– Zelibatua nola bizi duzu?

- Ezagutu ditut lagunak seminarioa utzi behar izan dutenak euren burua ez zute- lako gai ikusten zelibatua aurrera eramateko. Ez gara harrizkoak eta batzuetan gu- re tentsioak izaten ditugu. Apaizok ezin diogu gure bihotza osorik inori eman. Horrek bere alde onak eta txarrak ditu, askatasun gehiagorekin bizi zaitezke, baina zerbaiten beharra du- zula beti. Zelibatua aukera bat.

– Zer eramango duzu Elgoibartik?


- Gure artean ez dauden lagunak, poliki-poliki eraikit- zen joan den eliza elkarte bat eta jendea, adiskidetasuna.

– Zein mezu eman nahi ze- nuke sermoian?

- Esnatzeko, ikasteko ba- rruko begiekin erreallitatea begiratzen. ata besteen lepo- an jartzen. Jendea lo dago . Esnatzeko esango nien eta, telebista leihotik behera bo- tatzeko!

BESTEAK ESANA

“Pertsona aparta, intuitiboa eta gartsua da. Askok du emateko eta modu ezberdinetan ematen du. Berezia sentiarazten zaitu” LOREDI SALEGI



BARREN

L.H.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 31. GEHIGARRIA



Otsailaren 22an "Ate irekien eguna" ospatu zuten Herri Eskolakoek ikasle eta gurasoen laguntza eta partaidetzarekin. Arratsalde polita pasa zuten benetan, besteak beste, pailazoan jolasekin izugarritzko giroa sortu zela-

rik. Argazkian aipatu eguneko une bat ikus daiteke, guraso eta ikasleak elkarren ondoan eseri eta ikuskizunarekin gozatzeko. Haurrek, gainera, aurpegia margotzeko aukera ere izan zuten eta egun batez eurak ere pailazo izan eta itxura alai horrekin bizitzeari zer den ezagutu zuten.

Tristeza

EGUVEN BATEAN ANDEREÑOAK
ARIKETA **NIK** EGITEN DIZKIZUDALA
ANTZEMANGO
DU!



Jakitunen eskutik

Jatearen baldintzapen soziala

Jateak, gosea asetzeaz gain bestelako funtzioak ere ditu gizartean: hitzegitean nahi dugunean jatordu bat egiteko geratzen gara, negozioetarako, ospakizunak, despedidak,... Ospakizun batean egoten den janari kopuru eta kalitatea, gonbidapena egiten duenaren gaitasun ekonomikoaren arabera izaten da. Are gehiago, mezpretxatzen dugun pertsona bategatik, "gosez hiltzen" dagoela esaten dugu.

Jateak duen izaera sozialak ez du zerikusirik elikadurarekin. Normalean horrelako ospakizunetan behar dugunaren bikoitza jaten dugu eragin sozialagatik edo gaizki ez geratzeagatik. Eta norbait gure esanetara dagonean "gure eskutik jaten duela" esaten da.

Zergatik ez dute jaten haurrek

Haurrengan oraindik ez dago determinatua jateak duen izaera soziala. Horregatik, haur batek gosea duenean bakarrik jaten du eta alferrik da gehiago janaraztea berak nahi ez badu. Halere, haurra konturatzen da jaten ez badu gurasoak urdurik jartzen direla eta ez jatea erabil dezakete zerbait lortzeko.

Batzuetan gurasoek bi ordu pasatzen dute haurrei bazkaltzen ematen eta berehala merienda eta gero afaria eman nahi izaten diete, oraindik digestioa egiten daudenean. Eta jaterik nahi ez

badute, medikuarengana joaten dira seme-alabak jaterik nahi ez duela esanaz.

Arazoak izaten diren familietan elikadura txarragoa izan ohi da.

Haurrak txikiak direnean "jateko" egoten dira eta nerabetasunean, "zergatik ez ote nuen jango!" sarri esaten dute gurasoek. Horrez gain, gurasoen artean arazoak ematen direnean amak semeak mimatu eta gehiegi ematen die jaten aitarekin izan dituen eztabaidak ahazteko.

Gastu energetikoa pisuaren, tenperaturaren, ariketa fisikoaren eta metabolismoaren arabera izaten da. Azukrea, proteinak eta koipea orekan izan behar ditugu energia, organuen formazioa bai eta hormonak mantendu ahal izateko. Printzipioz proteina eta koipe gehiegi jaten ditugu eta zereale eta fruta gutxi. Haurrei denetik jaten irakatsi behar zaie eta ez ordezkatu janari bat beste bat jan nahi ez duenean. Ez da inor hilko egun bat edo astebete jan gabe egonez gero. Haur bakoitzari egokitu egin behar zaio razioa, platerkada handiegiak eman gabe eta ahalik eta ogi gutxien eta itxura ere zaindu egin behar da, kolore piskat emanaz azenarioarekin, barazkiekin... Haurrengan elikaduraren zentzu ludikoa piztu behar da.

Cesar G. Martino
Medikua

Zer iritzi daukazufama.....ri buruz?



Ona da zeren eta haundia zarenearan famatua bazara aita eta ama poratu egiten dira eta arko ligatzen duzu.

INIGO DE LOS OJOS, 10 urte



Nahiko txapada dela iruditzen zait denbora zuztitan periodis- tak atzetik dituzulako inporta ez zaien gauzak saltzetzen.

ANA ARREGI, 12 urte.



Demi Moore estrip-teare egiten duelako famatua da.


AITZIBER CANCIO, 7 urte



**AITOR
IDUEÑA**
12 wtvg

Galde debalde

- 1- Zein urtaro gustatzen zaizu?
- 2- Zein da zure ilusia?
- 3- Ba al dakizu norbait imitatzen?
- 4- Irakurtzen al dituzu komikiak?
- 5- Zein lore gustatzen zaizu?
- 6- Sekula jantziko ez zenukeen arropa?
- 7- Gehien gustatzen zaizun garratza?
- 8- Zein tokira joan nahi zenuke?
- 9- Zein animalia izan nahi zenuke?



**ENADA
ETXANIZ**
6 wtvg

- 1- Uda, oporrak direlako.
- 2- Pilotaria izatea.
- 3- Ez.
- 4- Noizian behin, Mortadelo y Filemon eta.
- 5- Ez zaizkit gustatzen.
- 6- Gona rosa bat.
- 7- Trena.
- 8- EEBBetara.
- 9- Txakurra.

- 1- Uda, hondartzara juteko.
- 2- Medikua izatia.
- 3- Ez.
- 4- Batzutan.
- 5- Margaritak.
- 6- Txapel beltza.
- 7- Kotxia.
- 8- Jaka.
- 9- Kokodrilua.

Zer da... *gezurra* ...?

SILVIA GONZALEZ 13 URTE



Gurasoei esaten dieguna zerbait gaizki egin dugunean ez harrapatzeko.

ALAZNE ESCUDERO 9 wtvg



Inoiz inori esan behar ez zaiona.

JON GARATE 14 URTE



Gurasoei esaten dieguna kontrol bat suspenditu badugu.

MIREYA GARCIA 11 wtvg



Ume txikiei esaten dietena: gezurra esaten badute Pinotxori bezala sudurra haunditu egingo zaiela.

BORJA TORROS 8 URTE



Gauza bat ez dena egia eta oso zatarra dena esateko. Gezurra esaten duena oso ume txarra da.

IÁ IGO IDAZABALBEITIA 11 wtvg




Ni tontoa naiz. Hori da gezurra.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da musikari hau?



2. Zer galdetu diegu?



IRATXE BALADA
7 urte

"Antena 3eko "Menudas estrellas. Asko gustatzen zait jendea abesten ateratzen delako eta niri asko gustatzen zait abestea. Marrazki bizidunen programa baten aurkezle izango nintzateke, muñeko eta guzti.

IKER RODRIGUEZ
9 urte

"'Impacto' deitzen dan programa bat ikusten dot, benetan pasau diazen gauzak ematen ditzue baina batzuetan oso fuerfia izaten dia eta gurasuek ez die lagatzen ikusten".



ERANTZUNAK: 1.-Tapia trikitilaria **2.-**Telebistako zein programa duzu gogoko?

Artisten txokoa



1227 milioiko aurrekontua onartu da 1997rako

Aurrekontuek izaera soziala dutela nabarmena da Isaac Loiolaren ustez

Ostegunean izan zen plenoan bi gai nagusitu ziren. Alde batetik, 1997 urterako aurrekontuen inguruan eztabaidatu eta tripartitoak (EAJ, EA eta PSE) osatutako aurrekontua onartu zen. Bestetik, HBk Mahai Nazionalako kideen atxiloketa eta gartzelaratzearen aurkako mozioa aurkeztu zuen.

HBko zinegotziek Pleno Aretotik alde egin zuten euren mozioak ezetza jaso eta gero. PP eta IUko zinegotziak aurrekontuen aurka agertu ziren, "ez dira partizipatiboak izan". Alderdi hauek hainbat emendakin aurkeztu zituzten baina atzera bota ziren eta 1227 milioiko aurrekontua bere horretan onartu zen EAJ, EA eta PSEren aldeko botuekin.

Isaak Loiolak plenoan eta astelehenean emandako prentsaurrekoan adierazi zuenez, "aurten ere austeritate izan da nagusi. 1995ean zorrak aurrekontuen totala gainditzen zuen. 1996an aurrezte netoa (inbertsio berriei aurre egiteko Udalak dituen errekurtsio propioak) bikoiztu egin genuen. Gaur egun zorra 75 milioi gutxiago da eta aurrekontu totalaren azpitik dago".

Gastuak jaisteko joerak markatutako aurrekontua da. Aurrekontuen izaera soziala ere aipatu zuen Loiolak, "zeudenak mantenduz eta berriak eskainiz, besteak beste, Eguneko Zentrua, Gazte Batzordea...".

Gastuen kapituluari buruzko azterketan, "partidak kapitulu batetik bestera pasatu direnez, pertsonal

gastuak (1. kap.) mantendu egin dira zenbakiak beste zer bait adierazi arren. Interesen atalean (3. kap.) beharpen nabarmena egon da. Interes tipoen beharreda eta maileguz bernegoziazioari esker izan da. Igo diren kapituluak subentzioenak (6. kap.) eta amortizazioarenak (9. kap.) izan dira". Sarrerei dagokienez, 6. kapituluko 31 milioi pta. kanposantuan eraikitzen ari diren nitxoen salmentakoak dira eta 7. kapituluko 110 milioi pta. Diputazioak San Migeleko errekestako obrak egiteko emandakoa da.

HBren mozioa

HBk Mahai Nazionalako kideen atxiloketen aurkako eta elkarriketa-aren aldeko mozioa aurkeztu zuen. J. I. Ausin EB-IUko zinegotziak alde bozkatu zuen. Tripartitaren izenean Isaak Loiolak hitzegin zuen, "Mahai Nazionalako kideen gartzelaratzeari juridikoki eztabaidagarria da baina HBren jarreraren proposandak ikustendua".

gu". PP, EA, EAJ eta PSEren botuekin

atzera bota zen HBren mozioa.

Kritikak oposizioari

Gillermo Garate alkateak kritika gogorak bota zituen oposizio hiru alderdien aurka. "HBren politika nuloa da. Ez dute ideiarik ez eta politika municipalik. Ez dituzte hautesle- en interesak defendatzen, hortaz, iruzur egiten diete". Era berean, ez aurrekontuen komisiotan ez plenoan HBk ez duela parte hartu salatu zuen. IUko zinegotziari buruz, HBren bidea jarraitzen duela esan zuen Garatek, "ekimen demagogikoen alde ere agertu delarik". PPko Juan Carlos Abiani buruz esan zuen "gai municipalen parakaidista hutsa" dela, "ez du aurrekontua onartzen Goikoerrotan bankoak jarri behar direla argudiatuz". Oposizio alderdiek ez dutela "maila ematen" adierazi zuen Garatek.



HISPANIA  **ZURICH**

J. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.


Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70



SARRERAK

(1. Kap.) Zerga zuzenak	240.007.565	(luz 221.828.075)
(2. Kap.) Zeharkako zergak	20.000.000	(luz 24.584.250)
(3. Kap.) Tasak eta beste sarrera batzuk	209.778.000	(luz 207.070.418)
(4. Kap.) Subentzio arruntak	615.490.487	(luz 617.579.601)
(5. Kap.) Ondare sarrerak	700.000	(luz 832.740)
(6. Kap.) Inbertsio errealen enajenazioa	31.000.000	(luz -)
(7. Kap.) Kapital subentzioak	110.523.948	(luz 81.848.653)

GUZTIRA 1.227.500.000 (luz 1.155.576.737)


GASTUAK

(1. Kap.) Pertsonal gastuak	296.596.415	(luz 309.900.799)
(2. Kap.) Gastu arruntak	274.023.615	(luz 244.077.052)
(3. Kap.) Interesak	79.369.707	(luz 120.345.663)
(4. Kap.) Subentzio arruntak	239.722.071	(luz 268.382.163)
(6. Kap.) Inbertsioak	231.520.805	(luz 130.262.863)
(7. Kap.) DEBEMEN	3.691.113	(luz 3.132.000)
(7. Kap.) Maileguen amortizazioa	102.576.274	(luz 77.643.197)

GUZTIRA 1.227.500.000 (luz 1.155.576.737)


GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

EUSKARA




Personal gastuak	8.796.942
DEBABE euskaltegia	11.355.025
Elkarteei laguntzak	18.815.288
Bestelako gastuak	1.630.000
GUZTIRA	40.597.255 (luz 28.588.617)

HIRIGINTZA • URA • KALEAK • NEKAZAL LURRAK




HIRIGINTZA	Personal gastuak	14.737.158
	INJELAN	2.000.000
	Erreminta Makinaren museoari laguntza	2.000.000
	Lurren erosketa	4.000.000
	Hiri altzarien erosketa	3.000.000
	Erabilera orokorrerako ondasunak	8.000.000
	Inmuebleen konponketa eta erosketa	14.000.000
	Bestelako gastuak	4.910.103
URA	Personal gastuak	9.896.373
	Ur horniketa	31.614.970
	Tresneria	4.000.000
	Ur Patzuergoaren azpiegitura	24.601.240
	Auzoetako obrak	5.290.500
	Bestelako gastuak	4.075.862
BIDE PUBLIKOAK	Personal gastuak	42.237.972
	San Migeleko errekaetara	110.193.948
	Seinalizazioa	2.000.000
	Urasandiko gurutzebideko obrak	5.000.000
	Bide publiko eta argiteriaren kontserbazioa	8.500.000
	Elizako kanpandorreko lanak	1.500.000
	Tresneria eta beste lan batzuk	23.750.000
NEKAZAL GARAPENA	Auzoetako lanak	27.000.000
	DEBEMEN	3.691.113
INGURUGIROA	Arbola eta landareen erosketa	300.000
GUZTIRA		356.299.239 (luz 286.921.528)

BARNE SAILA




Agintarien ordainsariak	15.424.341
Dieta, protokolo eta telefono gastuak	1.600.000
Indemnitzazio eta komisioetara asistentzia	10.042.430
Adimistrariaren ordainsariak	30.276.468
Bestelako gastuak	15.985.000
Udaltzainen ordainsariak	74.821.248
Automobilak, seinalizazioa...	2.850.000
GUZTIRA	150.999.487 (laz 152.293.686)

GIZARTE PRESTAKUNTZA • ONGIZATEA • OSASUNA • AZOKA



ONGIZATEA ETA OSASUNA	Personal gastuak	24.131.824
	San Lazaro egoitza	17.000.000
	Etxez etxeko laguntza	13.500.000
	Garantia sozialeko moduluak	3.000.000
	Kooperazio sozialerako programa	2.300.000
	Larrialdietarako familiei laguntzak	7.350.000
	Elkarteei laguntzak	2.100.000
	Bestelako gastuak	3.175.580
	Jubilatuena Etxea	10.025.000
KALE GARBIKETA	Pintadak	6.000.000
	Kale garbiketa	38.588.804
	Zabor bilketa	42.568.955
Hilerriaren anpliazioa		37.123.812
Kontsumitzaileen babesak		2.055.680
Azoka		9.955.175
Babes soziala		2.530.000
Pentsioak		5.100.000
Enpleguaren sustapena		1.286.320
Bergizarteratze soziala		5.150.000
GUZTIRA	232.941.150 (laz 216.491.426)	


KULTURA • GAZTERIA • KIROLA • HEZKUNTZA



HEZKUNTZA	Personal gastuak	3.154.305
	Eskolen gastuak	24.200.000
KULTURA	Personal gastuak	10.621.895
	Musika Fundazioa	41.000.000
	Kirol Patronatua	41.060.000
	Herriko Jaiak	23.650.000
	Pelikulen alogera eta garraioa	4.505.000
	Udal Gazte Batzordea	6.500.000
	Antzetzaldearen gastuak	2.500.000
	Kultur Elkarteei dirulaguntzak	5.020.000
	Hurtzaindegia	7.794.958
	Katanarrako arkua berriz jartzea	2.519.404
	Zine subentzioak	2.000.000
	Bestelako gastuak	15.108.720
LIBURUTEGIA	Personal gastuak	7.481.054
	Liburuen erosketak	1.400.000
	Bestelako gastuak	1.836.000
GUZTIRA	200.351.336 (laz 208.833.797)	



“Krola gustatzen zait gehien, tximeleta gutxien”



Asier Ajuriagerra

- **Adina:** 11
- **Gozoa ala gazia?** Gozoa
- **Oporretan nora joaten zara?** Soriara, Molinos de Duero-ra
- **Zein arroparekin zaude erosoen?** Txandalarekin eta deportezko zapatilekin
- **Opari bat jasotzekotan, zein?** Kainabera eta karrete on bat

– **Zenbat urte daramatzazu igeriketa eskolan?** - Lau edo bost urte. Eskolatik igeriketa ikastaro batera joan ginen eta nahiko ondo egiten nuenez igeriketa eskolan hastea nahi nuen galdetu zidaten. Horrela hasi nintzen.

– **Zergatik aukeratu zenuen igeriketa eta ez beste kirol bat?**

- Igeriketa asko gustatzen zaitzaidalako eta eskolan egiten genuelako futbola eta beste kirol batzuk. Baina batez ere asko gustatzen zaidalako

– **Estilo ezberdinak lantzen dituzue. Zein doakizu ondoen?** - Lau estiloak egiten ditugu. Denetatik krol estiloa gustatzen zait gehien, bizkorrena delako baina nekatua ere bada. Hala ere, batzuetan futboleko aritu eta gero joan izan naiz eta orduan braza egiten dut, erlajatzeko.

– **Eta txartoen?** - Estilorik zailena tximeleta iruditzen zait. 100 metro tximeleta egiten dugunean asko nekatzen naiz. Teknikoki zailtasun handiena daukana da. Bularra eta besoak asko atera behar dira eta hankak koordinatzea zaila da. Braza egiterakoan bira ematea ere nahiko zaila iruditzen zait, askotan irristatu egiten naiz eta.

– **Eta zein distantzia eta estilo-**

tan moldatzen zara ondoen? - 50 metro krolean. Markarik onena distantzia horretan lortu izan dut. Aurtun Legazpira, Azpeitira eta Oñatira joan gara probetan parte hartzera.

– **Gogorra egiten al zaizkizu entrenamenduak?** - Hasieran batez ere. Asko nekatzen nintzen baina orain ezberdina da, gustua hartzen zaio. Entrenamenduetara gustura joaten naiz. Hasieran beroketa ariketak egiten ditugu eta gero, igerian hasten gara. Oraingozi abiadura da gehien lantzen dena, lasterketak ez direlako oraindik oso luzeak. Honez gain, saltoak egiten ditugu, oso inportantea delako uretara sartzean ondo salto egitea, bestela deskalifikatu egiten zaituzte. Behin hori gertatu zitzaidan.

– **Eta entrenatzailea gogorra al da?** - Batzuek baietz diote, nekatu egiten direlako baina normala da. Entrenatzailea ez bada gogorra...

– **Buzeoa gustatzen zaizu?** - Gustatu bai baina ez naiz oso ona. Entrenamendu bukaeran egiten dugu normalean.

– **Hondartzan igeri egiten duzu?** - Piska bat bai baina ez igerilekuan bezala, entrenamendu modura. Hondartzan olatuekin ezin daiteke igerian ondo egin.

KIROL ALBI STEAK · KIROL ALBI STEAK

● Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketa

Ibai Klubeko Esther Idiakerek eta Carmen Lendinezek Eskolarteko Gipuzkoako finalerako sailkatzea lortu zuten Plazentzian jokatu zen txapelketan. Estherrek aro eta sokekin lehen postua eskuratu zuen eta Carmenek bosgarren postua, hortaz, Donostiako finalean izango dira. Maria Idiakerek ez zuen sailkaterik lortu. Hala ere, oraindik oso gaztea dela kontuan izan behar da.

● Araiara irteera

Datorren domekan, hilak 23, Arabako Araia herrira irteera antolatu du Morkaikok. Irteera Araia herria eta Arantzazuko Santutegiaren artean burutuko da eta jendeak ibilbide ezberdina egiteko aukera izango du, zuzean eginez edo Aratz eta Aizkorri mendietatik. Goizeko 7,30etan Plaza Handian izango da irteera.

Aurtengo egutegiari buruz, ekitaldi nagusien behin-behineko datak jarri ditu Morkaikok. Horrela, maiatzaren 1, 2, 3 eta 4an Pirinioetara lau eguneko irtenaldia antolatu du, eta uztailean 6an mendi bizikletan irteera. Urri, azaro eta abendurako mendi irteera ezberdinak eta ohiko argazki lehiaketa antolatu ditu Morkaikok.

● Jubenilen lehen txirrindulari lasterketa

Joan den asteburuan Elgoibarko Lagun Taldeko jubenilen taldeak lehen lasterketa izan zuen Eibarren. Ramon García elgoibartarrak, Ciclos Iñigo taldekoak, lasterketaren hasieran tropeletik ihes egin zuen. Lasterketa osoa ihesaldian egin ondoren, helmugara iristean, bere taldekide Oregi plazentziarra parera heldu eta biak batera sartu ziren helmugan, eskua emanda. Ramon García mendiko saria eta lasterkari erasokorrenaren saria irabazi zituen. Ciclos Iñigo jubenilen taldea, berriz, lehenengo geratu zen taldeka.

Elgoibar Igeriketa Taldea sortu da

Aste honetan bertan eratu da Elgoibar Igeriketa Taldea. Udal Kirol Patronatu-ko zuzendariak esan digunez, "orain arte Olaizaga Kirol taldearen barruan karatea eta igeriketa zeuden, baina karate taldeak bakarrik zeuzkan estatutuak. Arrazoi honegatik igeriketa taldekoek ezin zuten federatutako probetan parte hartu eta arazo honi irtenbide bat emate aldera, igeriketa taldearentzat estatutu batzuk egin eta Elkartearen Erroldan izena eman genuen".

Igeriketa Taldea federatua ez egotera-koan, eskolarteko txapelketetan bakarrik har zezaketen parte. Honek esan nahi du Federazioak antolatzen dituen Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartzerik ez zutela. Federatutako txapelketetan aritzeko gutxieneko denborak edo markak egin behar izaten dituzte igerilariek. Azken aldi honetan asko hobetu omen da igerilarien maila eta aurrera begira txapelketa federatuetan parte hartzeko aukera izan dezakete. Hau horrela izanik, Patronatuko zuzendaritzak

eta gurasoek bilera egin zuten eta handik "Elgoibar Igeriketa taldea" sortu zen.

Hiru talde

Igeriketa eskola hiru talde ezberdinetan dago banatua. Talde batean oinarritzko mailakoak daude, "hau da, flotazioa, propulsioa eta oinarritzko teknikak ikasten dituen taldea". Hauek 6 eta 7 urte bitarteko haurrak dira eta guztira 20 daude. Astelehen, asteazken eta ostiraletan egiten dituzte entrenamenduak. Bigarren taldean 10 bat neska-mutil daude, zazpi eta zortzi urte bitartekoak eta entrenamendu egunak ere berdinak dira. "Hauen maila apur bat hobea da baina oraindik ez daude txapelketetan parte hartzeko moduan". Azkenik, hirugarren taldean 17 bat igerilari daude. Alebin, infantil, kadete eta junior mailakoak dira eta eskolarteko txapelketetan parte hartzen dute. Markak hobetu ahala, federatutako txapelketan hasiko dira. Talde guztietako arduraduna entrenatzaile titulua duen eta igeriketa monitorea den Izaskun Zurikarai eibartarra da. Igeriketa Eskolako gainbegiratzaile lanetan Patronatuko zuzendaria aritzen da.



Elgoibar Igeriketa Taldean 37 neska-mutil dago gaur egun.

EMAITZAK

Futbola

Hernani 0 - **Haundi** 1
 Antoniano 1 - Elgoibar 0 (**1. erreg. erreg.**)
 Pedrusko 1 - Eibartarrak 3 (**2. erreg.**)
 Elgoibar 5 - Oiartzun 1 (**Oho. jub.**)
 Elgoibar 2 - S. Patricio 2 (**2. jub.**)
 Real Unión 5 - Elgoibar 0 (**Kad.**)
 Elgoibar 2 - S. Herrera 3 (**Inf.**)
 Intxaurdi 2 - Elgoibar 3 (**Neskak**)

Saskibaloia

Lazkaoko S.T. 60 - Elgoibar S.T. 42

Eskubaloia

Bergara 7 - Unceta Elg. 20 (**Kad. nesk.**)
 Don Bosco 13 - Pneumax Elg. 43 (**Kad. mut.**)
 Urnieta 19 - Pagoaga Elg. 15 (**Jub. nesk.**)
 Tecnomeca Elg. 23 - Bergara 15 (**Jub. mut.**)
 Hyundai Elg. 32 - Urola 26 (**Seniorrak**)

Xakea

Fortuna 3 - Elgoibar A 1 (**1. maila**)
 Elgoibar C 2 - Alfil B 2 (**3. maila**)

Areto futbola

Elgoibar 2 - Pur. Pasajes 4 (**Autonomikoa**)
 Elgoibar 6 - Aloña Mendi 0 (**1. maila**)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 15
 11:00 Elgoibar - Oiartzun (**Kad.**)
 11:30 Elgoibar - Hondarribia (**2. jub.**)
 16:30 **Haundi** - Tolosa
 18:15 Elgoibar - Intxaurrondo (**Neskak**)
Igandea, 16
 9:30 Gazteak - Usurbil (**2. erreg.**)
 13:00 Eibartarrak - Aretxabaleta (**2. jub.**)
 14:45 Urki - Antoniano (**Jub.**)
 16:30 Elgoibar - Lasarte (**1.erreg.**)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 15
 16:00 Pneumax Elg. - Leizaran (**Kad. mut.**)
 17:30 Unceta Elg. - Pulpo (**Kad. nesk.**)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 15
 19:00 Elgoibar - Ind. Lagun Artea

Xakea, Juan Mugerza kalean

Larunbata, 15
 Elgoibar A - Alfil A (**1. maila**)
 Elgoibar B - San Andres (**2. maila**)

ELENA
 ileapaindegia
 Depilazio Elektrikoa
 San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89


- Kontabilitate
 - Lan
 - Fiskal

URKIDI
AHOLKULARITZA
ASEGUROAK

Kalamua 12
 ELGOIBAR
 Tel-Fax:
 74 18 91

● “Kafe usainean” hilaren 21ean

Elgoibarko Izarra Elkar-teak “Kafe usainean” egitasmoa jarriko du martxan martxoaren 21ean, ostirala. “Kafe usainean” hilean behin izango da, hileko azken ostiralean, eta elgoibartarrak protagonista diren hainbat kultur ekitaldi antolatuko dira gaueko kafearen bueltan. Ekitaldiak Kultur Etxeko sotoan izango dira gaueko 22:30etan hasita. Martxoaren 21ean, Miren Gorrotxategi eta Amaia Gabilondo pianojoleak, Gabi kitarrajolea, Joseba Alonso aho-soinuarekin eta Itxaropenako zortzikote bat izango dira musika atalean. Halaber, Mertxe Sueskunen artelanak ere bertan izango dira ikusi eta erosteko aukerarekin.



Miguel Fuentes eskultore eta pintore ermuarraren erakusketa

Eskulturak ezezik, oleoak ere izango dira ikusgai hilaren 30era arte

Gaurtik, hilak 14, hasita eta hilaren 30era bitartean, Miguel Fuentes Ermuko 23 urteko gaztearen eskulturak eta pinturak ikusgai egongo dira Kultur Etxean. 20 bat eskultura eta 10 bat kuadro izango dira. Estiloari dagokionean, Miguel berak esan digu, “eskulturak nahiko figuratiboak” direla. “Zenbait figurek natura zein gaizki tratatzen dugun isaldatzen dute, beste batzuek pertsona batek nola erreakzionatzen duen egoera baten aurrean”. Pinturak, berriz, oleoak dira. “Fondo batzuek dira pertsona baten izakera adierazten dutenak”.

Miguel Fuentes Debako Arte Eskolan ari da ikasten. “Nire kontura altzariak errestauratzen ditut eta egurra lantzetik sortu zitzaidan hain zuzen eskulturarekiko zaletasuna”. Carrarako harriak edo Debako harrobitik hartutako harrietatik artelanak egiten ditu Miguelek. “Zergatik erakusketa Elgoibarren? Pare bat erakusketatan egon naizelako eta jendearen aldetik harrera ona izan dutela ikusi dudalako. Ermuan baino hobea bai, behintzat”.



**ISABEL ANSOLA
ARZUAGA**
-Goian bego-
Elgoibarren hil zen
martxoaren 10ean, 71 urterekin.

*Jainkoak elkar dezala
Isidororekin betirako
gozamina eta atsedena
har dezaten bere bide
berrian.*

PIKUPEko langileak



177 aterpetxe Euskal Herrian zehar

Aurki Aste Santuko oporrak izango dira. Askok seguruena planak ere eginda izango dituzte. Gazteek, normalean, ekonomiari begiratu eta irteera merkeenak hartu behar izaten dituzte. Gaurkoan, aterpetxeen berri emango dugu. Euskal Herrian 177 aterpetxe dago guztira, zazpi probintzietan hedatuak.

◆ Batzuk ohea ezezik jangela edo sukaldean aritzeko aukera ere eskaintzen dute, literak, dutxa, telebista, bideoa, berogailua...

◆ Aterpetxe batzuetara joan ahal izateko nazioarteko aterpetxe agiria izan behar da. Agiri horren jabe izanez gero, IYHF-eko (International Youth Federation) 5.000 aterpetxeta-

tik gora erabiltzeko aukera dago mundu guztian barrena.

◆ Agiriak lau eratakoak izan daitezke:

-Gazteak: 14tik 25 urtera bitartekoak (biak barne). 500 pta. balio du (Gazte Txartela izanez gero 250 pta.).

-Helduak: 25 urtetik gorakoak. 1.000 pta. balio du.

-Familiak: Haurrak dituzten familiek atera dezakete eta 3.000 pta. balio du.

-Taldeak: 10 lagunetik gorako Gazte Elkarte edo antzekoentzat da. El-



kartea osatzen duten pertsonen zerrenda eta arduradunaren nortasun agiria aurkeztu behar dira eta 2.000 pezeta ordaindu.

◆ Donostiako Kultura Lurralde Ordezkaritzan egin daiteke agiria, Andia kaleko 11. zenbakian. Telefono zenbakia 424013 da.

◆ Gehienetan berehala tramitatzen da agiria baina komeni izaten da aldez aurretik deitzea. Agiri hauek urtea bukatu arte balio dute, abendura arte.

◆ Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Etxez etxe Euskal Herrian" izeneko liburua argitaratu zuen iaz Euskal Herriko aterpetxeen izen, baldintza eta helbideekin. Elgoibarko Kultur Etxean ere galde daiteke.

Izan al zara sekula aterpetxe batean?



Verónica Gutierrez, 15 urte

Sekula ez naiz alberge batian egon, ez dou ezagutzen. Ez dogu ezta planteau ere, kanpina beti iruditxu jaku onena. Egixa esan ez dao informazio gehixegi albergieri buruz.

Mirtia Avila, 15 urte

Normalean gurasoekin joaten naiz oporretara oraindik ez didatelako lagunekin joaten lagatzen. Gehien kanpina gustatzen jata, zuk eitxen dozulako janarixa, ambientia sortzen dalako.... Hala ere, ezagutzen dot alberge bat edo beste eta aukera izanez gero jungo nitzan alberge batera.



1997ko martxoaren 10ean, 71 urte zituela hil zen **ISABEL ANSOLA ARZUAGA**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Era berean, gogoratu **ERROSARIO SANTUA** izango dela martxoaren 17tik 21era Parrokian, arratsaldeko 6,40tan.



TERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
 Gurutze Gorria . . . 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua
 744415

Kultura Zerbitzua . 742158
 Mendaroko Udala. 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 741626
 Kiroldegia. 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola . . . 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco . 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia . . . 74 34 74

14 ostirala

19:30 ESKULTURA ERAKUSKETA
 Egilea: Migel Fuentes
 Kultur Etxean
 Hilaren 30era arte
22:30 ZINEA
 "Urte Ilunak"
 Arantza Lazkano
 zuzendariaren aurkezpena
 Herriko Antzokian
 Antolatzaileak: AEK
 euskaltea eta Ongarri
 Zine Kluba

15 larunbata

11:30 ZAZPIKIren BILERA
 Ganbaran
19:30-22:15 ZINEA
 "Un día inolvidable"
20:00 ARITZETA ABESBATZAREN KONTZERTUA
 Zuzendaria: Izaskun Labaien
 Parrokian
 Antolatzaileak: Itxaropena
 abesbatza eta Musika
 Fundazioa

16 igandea

10:30 BANDAREN KALEJIRA
12:30 BANDAREN KONTZERTUA
16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "Un día inolvidable"

17 astelehena

22:15 ZINEA
 "Un día inolvidable"

18 asteartea

21:00 IKASTOLAKO BATZAR NAGUSIA
 Gaia: Kilometroetako
 memoria eta emaitzak
 Ikastolan

19 asteazkena

18:30 EUSKARAOKEAREN GRABAZIOA
 Plaza Handian
19:30 TXELO ETA SOINU KONTZERTUA
 Iñaki Alberdi eta Miren
 Zubeldia
 Herriko Antzokia
 Antolatzailea: Musika eta
 Dantza Fundazioa

20 osteguna

19:00 IKASTOLAKO DBH ETA BBBko IKASLEEN JAIALDIA
 Herriko Antzokian
22:15 ZINE KLUBA
 "El secreto de la isla de las focas"

21 ostirala

12:00 KORRIKA TXIKIA
 Madalatik hasita
14:30 KORRIKARI ONGI-ETORRIA
 Sigmako zubian
20:00 PARROKI ABESBATZAREN KONTZERTUA
 Zuzendaria: Laura Bilbao
 Parrokian
 Antolatzailea: Musika eta
 Dantza Fundazioa
22:15 ZINE KLUBA
 "El secreto de la isla de las focas"
22:30 "KAFE USAINEAN"
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea: Elgoibarko
 Izarra

ZIN



Zuzendaria: Michael Hoffman
 Antzezleak: Michel Pfeiffer, George Clooney, Mae Whitman.

Un día inolvidable

Melanie Parker seme bat duen arkitekto bat da. Semea haztea eta bere lana konpajinatzea oso zaila gertatzen zaio batzuetan. Behin ferry batean txango bat egitera doazela, semearen eskolako lagunaren aita ezagutzen du. Dibortziatua dago eta hau ere oso lanpetuta bizi da. Bere erruagatik umeez ferrya galtzen dute eta bien artean seme-alabak zaindu beharko dituzte.

● Aste Santuko musika kontzertuak

Bihartik hasita, hilak 15 eta martxoaren 21era bitartean hiru musika kontzertu izango dira Elgoibarren. Bihar, larunbata, Itxaropena abesbatza eta Musika eta Dantza Fundazioaren eskutik, Bergarako Aritzeta abesbatzak kontzertua emango du Parrokian. Izaskun Labaienek zuzendurik hamabi pieza eskainiko dituzte. Kontzertua iluntzeko 8etan izango da.

Hurrengo kontzertua "didaktikoa" deitzen direnetakoa da. Inaki Alberdi soinu-jole irundarrak, Gipuzkoako txapeldu izandakoak eta Valladoliden, Moskun eta Frantzia sariak irabazi dituenak, hainbat pieza joko ditu. Ondoren Miren Zubeldia donostiarraren txanda izango da. Txeloa jotzen duen emakume honek Euskadiko orkestarekin jo izan du eta gaur egun Santaderreko kontserbatorioko irakaslea da. Saioa 7:30etan hasiko da. Azken kontzertua martxoaren 21ean izango da. Parroki abesbatzak 10 kanta eskainiko ditu iluntzeko 8etan Parrokian hasiko den saioan.

● Bandaren kontzertua

Igandean, hilak 16, goizeko kalejiraren ostean, Musika Bandak kontzertua emango du 12:30etan Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean obra hauek joko dituzte: "Himno Regional de Valencia", "Der Freischutz", "Memory", "La Revoltosa" eta "Superman".

● Ikastolako DBH eta BBBkoen jaialdia

Datorren ostegunean, hilak 20, Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako eta BBBko 1. eta 2. mailako 240 bat ikaslek urteko jaialdia egingo dute Herriko Antzokian. Saioa arratsaldeko 7etan hasiko da eta hainbat obra antzeztuko dituzte: sketchak, dantzak, play-back-ak eta telebistako zenbait programen parodiak.

● Ikastolako Batzar Nagusia

Datorren asteartean, hilak 18, San Bartolome Ikastolak bazkideen urteko batzar nagusia egingo du. Bertan landuko den gaia joko den urrian ospatu zen Kilometroak 96 jaiaren memoria eta emaitzak ekonomikoa izango da. Lehen

deialdia iluntzeko 8:30etarako egin dute, hala ere, 9etan hasiko da bilera.



● ETBko Euskaraokea Elgoibarren

Datorren asteazkenean, hilak 19, ETB1eko Euskaraokea programa Elgoibarren grabatuko da. Plaza Handian kokatuko dute eskenatokia, eliza atzealdean izanik. Grabazioa arratsaldeko 6:30etan hasiko da eta herriko ikastetxeetako 36 neska-mutil aterako dira kantatzen. Grabazioa bost bloketan egingo da, bloke bakoitza egun batean emitituko delarik. Hortaz, Elgoibarren grabatutako programak egunero botako dituzte apirilaren 14tik 19ra bitartean arratsaldeko 8etan ETB1etik.

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: J. Sayles
Antzezleak: J. Courtney, E. Colgan, M. Lally, R. Sheridan.

El secreto de las isla de las focas

Irlandako kostaldera aitona-amonekin birtzera doan neskatok, Fionnack, Roon Inish izeneko irla bati buruzko istorioak entzuten ditu. Bertan foka-gizakiak bizi omen dira. Behin, erdi gizaki erdi fokak diren izaki mitiko hauei buruzko kondaira azalduko diote. J. Sayles, zine klubean duela gutxi ikusi genuen Lone Star filmaren zuzendariak egindako pelikula honek, 97ko Oscar sarietarako gidorik onenaren izendapena jaso zuen.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

- | | |
|-------------------------|-------|
| Egunez | Gauez |
| 14 Ormazabal Ormazabal | |
| 15 EtxeberriaEtxeberria | |
| 16 EtxeberriaEtxeberria | |
| 17 Bidasolo Anduaga | |
| 18 Yudego Zabaleta | |
| 19 EtxeberriaEtxeberria | |
| 20 Ormazabal Escala | |
| 21 Bidasolo Bidasolo | |

OKINDEGIA

16 igandea EIZAGIRRE

Salerosketak

♦ SALDU ♦

- ♦ BX turbo diesel bat salgai. Egoera onean. ☎ 74 40 77 (20:00-22:00, Fermin)
- ♦ Buzeatzeko traje bat saltzen dut. Bi aldiz forratua, 7 mm-takoa eta "Mares" etxekoa. ☎ 74 36 91
- ♦ Bulegorako mobiliarioa salgai. ☎ 74 28 64
- ♦ Idazmakina elektronikoa berria salgai ☎ 74 44 43 (5:30etatik aurrera)
- ♦ MIBI 4X4 etxe-furgoneta bat salgai. Teilatu altzagarria, guztiz ekipatua, estra askorekin. ☎ 76 04 47
- ♦ "LETRERO DE MENSAJES" delakoak saltzen ditut era guztietako komertzioerako, taberna eta jatxeerako bereziki fabrikatuak. Berriak eta gutxi erabiliak. Prezioa hitzegitokotan. ☎ 74 00 38
- ♦ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatiblea salgai. (Mikel) ☎ 74 19 21
- ♦ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ♦ 1,05x2 luzerako OHE estreintatu berria salgai. ☎ 74 23 22
- ♦ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30

Bestelakoak

- ♦ Harri bitxiak dituen urrezko pulsera bat galdu nuen. Sarituko da. ☎ 74 18 33
- ♦ Caritas-ek egongelarako armairu bat hartuko luke. ☎ 74 15 09 / 74 12 57
- ♦ 1970. urtean jaiotakoen eta Ikastolan ibilitakoen afaria antolatuta da. Joan nahi duenak dei dezala. ☎ 74 06 40 (Maria Pilar Arribalabaga)
- ♦ Bi katakume oparituko nituzke. Bata arra eta beste emea. ☎ 74 23 33 (Belen)
- ♦ Zortzi-hamar urte bitarteko ume batentzako bizikleta oparituko nuke. ☎ 74 44 34
- ♦ Madala inguruan almazenerako lokal bat alokatzen da. ☎ 74 13 84

Lana

♦ ESKAERA ♦

- ♦ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ 75 26 75 Mari Karmen
- ♦ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel
- ♦ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ♦ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 74 28 43
- ♦ Klinika auxiliaria eta psikiatra auxiliaria gaixoak zaintzeko rest dago. ☎ 74 05 45
- ♦ Neska batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. ☎ 74 30 84 (Reme)
- ♦ Haurrak edo nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 22 78
- ♦ Ordenadorez lanak egiten ditut bai enpresentzat eta bai partikularrentzat. Deitu ☎ 74 22 86 zenbakira.
- ♦ Pertsona nagusiak zainduko nituzke. ☎ 74 30 30
- ♦ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38

♦ ESKAINTZA ♦

- ♦ Kamarera bat behar dugu jangelarako Plazentzian. Esperientzia eskatzen da eta euskalduna bada hobe. Curriculum-ak bidali 130 postakutxatilara. Soraluze

Partikularrak

- ♦ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Garikoitz
- ♦ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ♦ Ingelesko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 15 82 Edu

Etxebizitzak

- ♦ Etxebizitza unifamiliarra saltzen dut. Duplex adosatua. 40m2-ko sotoa eta 3 fatxada. Prezio interesgarria. ☎ 13 16 83
- ♦ Etxebizitza bat saltzen da Deban. Bista ezinhobeak eta etorkizun handiko lekua. ☎ 19 19 22
- ♦ Pisu bat alokatuko nuke. ☎ 74 19 22
- ♦ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. Erabili gabe dago. ☎ 75 51 77
- ♦ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldea, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ♦ Pisia daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ♦ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ 74 01 34
- ♦ Pisia salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. ☎ 12 72 22
- ♦ Pisia salgai San Inazio kalean. 90 m2koa. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04

Garajeak

- ♦ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ♦ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ♦ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10

Agurrak

- ♦ Zorionak **Iker Astigarragari** martxoaren 16an 12 urte betetzen dituelako. Saioa de Pedronen partez.
- ♦ Zorionak **Unai Muñoz** martxoaren 12an 12 urte bete zituelako. 6. mailakoen partez, bereziki nesken partez.
- ♦ Zorionak **Amaia Oterori** (super relevo) martxoaren 13an 12 urte bete zituelako.
- ♦ **Pili Villari** zorionak senideen partez martxoaren 8an urteak bete zituelako.
- ♦ Zorionak **Maiara Martini** bere 15. urtebetetzea izan delako gaur, hilak 14. Familiak.

Agurrak

Zorionak **Elo-rriri** martxoaren 16an 6 urte egingo dituelako etxeko guztien partetik.



♦ Zorionak **Iru-ne Martinez** martxoaren 21ean 9 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizpa Alazne.



♦ 6 tirakada belarritik eta 10 musu handi gure kuadrilako maskotari. Zorionak **Itxaso Egañari** martxoaren 16an 6 urte beteko dituelako. Bere amatxo, aititxa-amama eta osaba-izeben partez.



♦ Zorionak **Miryam Garateri** martxoaren 16an 29 urte beteko dituelako. Inigo eta Jonen partez.



♦ Hiper-supermegaultraplus zorionak **Naiara Martini** gaur, hilak 14, bere urtebetetzea baita eta txokolatzeko 15 tableta berarentzat 5. mailakoen eta bere familia osoaren partez. Eta beharbada bere supernobioaren partez. Zorionak!!!



♦ Zorionak **Mari Joseri** (39) urteak betetzen dituztelako hilaren 15ean eta 18an. Zeinen partez ote?



♦ **Ainara de Pedrori** martxoaren 17an urteak betetzen dituelako Heimsteing zorionak. 6. mailakoen partez. Zorionak baita ere bere ahizparen partez.

♦ Superzorionak **Unai Ortegari** martxoaren 12an 10 urte bete zituelako 4. mailakoen partez eta bereziki mutilen partez.

martxoak

19

eguna

Elgoibartik irten gabe **aitari** oparitzeko 12 ideia

 <p>CAMPER</p> <p>10.975 pta.</p> <p>OSOVO</p>	 <p>ikus OPTIKA</p> <p>BARES OSOKO EGUZKITAKO BETAURREKOAK 4.500 pta.</p>	<p>KALTZONTZILAK 1.525pta.</p>  <p>ecenarro</p>	 <p>SEIKO KINETIK ERLOJU</p> <p>IOSU BITXIDENDA</p>
 <p>PIXAMA 6.050 pta</p> <p>karkizano</p>	<p>TRESNA HUTXA 2.490pta</p>  <p>ETXABE</p>	 <p><i>Kinolekako zapatilak eta kamiseta</i> 11.700 + 4.980 pta</p> <p>IRIONDO KIROLAK</p>	 <p>Bizarra mozteko tresna – 12.400 pta.</p> <p>LEIZABE</p>
<p>Aranburu</p>  <p><i>Urrezko medaila</i> 19.890 pta.</p>	<p>Luma eta boligrafoa 11.900pta.</p>  <p>MEKANOSA</p>	 <p>2.200 2.950</p> <p>PITXITXU</p>	<p>UZURI</p>  <p>Eguzkitako betaurrekoak 2.900</p>

Kafe beroa ezpainetan daukazula, pastelak probatzeko desiatzen egongo zara. Eskerrak kopatxo batek dena bere tokian lagako dizun. Eta musikak sentimendurik ezkutuenak azalaraziko dizkizun bitartean, artelanen edertasunaz jabetuko zara. Etorriko zara, ezta?

Mertxe



Miren



Martxoak 21, ostirala
Gaueko 10:30etan
Kultur Etxeko sotoan

SARRERA

500 pta.

Kafea, pastelak, kopa
eta **IKUSKIZUNA!**



Gabi



Antolatzailea:
ELGOIBARKO IZARRA



Babesleak:
XIGORTZE KOMERTZIALA
Kafe banatzailea

MURUAMENDIARAZ
Gozotegia

AITZBIZKAR
Edari banatzailea

KARKIZANO
Mertzeria